

Noaia!!

www.noaia.com



Desegin taldeari elkarriketa



Egin Dezagun Bidea taldea

“Ea denon artean bultzada ematen diogun
presoen gaiari, ez dadin gehiago luzatu”



Esan agur kutxila, krema eta argizariari!!
Ilea desagertarazteko momentua
iritsi da! **FOTODEPILAZIOAREN** garaia
Eskatu ordua! **FROGA BAT DOAN**
konpromisorik gabe!!!

Tel. 943 362 887
Mov. 619 060 685
lourdes@esteticalourdes.es
www.esteticalourdes.es

USURBIL OPTIKA



UMEEN
BETAURREKOETAN
AUKERA EDERRA!!!

-%40

**50€-ko
BALEA**

BETAURREKO
PROGRESIBOETAN
(HOYA)

Zubiagurrenea 10 USURBIL
943 370 269 eta 675 708 654

I. URKUZOLA ARROZTEGIA

**Konfiantzazko arotza nahi baduzu,
etor zaitez gurera**

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea.



Oria etorbidea 4, behea, LASARTE
(Errekatxo jatetxearen ondoan)
Tel.: 943 371 200 • 610 413 131

EGUZKILOREA ESKOLA - TAILERRA

ESKULANAK, DEKORAZIOA,
ERRESTAURAZIOA
BITXIGINTZA, MODAZKO OSAGARRIAK

HAUR, HELDU eta GAZTEENTZAT
KURTSOAK

(Ingelesez egiteko aukera!)

943 36 40 86

USURBIL

KURTSOEN HASIERA: HILABETEKO LEHEN EGUNEAN

Albistea iruditan !!

Esperientziak trukatzeko aukera aparta Artzabalen

Esperientzia Eskolaren ikasturte berria hasi zen pasa den astean. Aurkezpen hitzaldi bat eskaini zuten Artzabalen. Aurrerantzean, asteartero elkartuko dira bertan, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara. Baina aste honetan bezala, datorren astean ere asteartea jai denez (azaroak 1), Esperientzia Eskolaren hurrengo bilkura asteazkenean izango da esandako ordutegian, 16:00etatik 18:00etara. Izena ez baduzu oraindik eman, jakin ezazu ikasturte osoak 50 euro balio duela. Eta ikastaso burutzen duten guztiek diploma bat jasoko dute. Informazio gehiago honako telefono zenbakian jaso daiteke: 943 22 41 46 (Aitziber Indart).



ARTZABALEN EMATEN DA ESPERIENTZIA ESKOLAKO TAILERRA.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Eguneako Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 570 999	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiaro Kirolegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieto, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldúa, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



UNAI AGIRRE

Aldaketa hasi da

Benetako demokrazia eskatzen ari dira munduan zehar. Herriaren hitza entzutea, banketxe zein multinazional handien esku ez egotea, azken finean, herriarengandik hurbilago egotea. Irudipena dut, bada, Euskal Herrian lortzen ari garela. Pozez hartu nuen Gipuzkoako Hondakinen Partzuergo berriak, zero zaborren ordezkari-tza onartu duela. Orain arte ikusita genuen, Partzuergoak garai batean diru publikoa hamarkada askotarako ondo lotu eta zin egin ziela banketxei, multinazionalekin kontratu erraldoiak eginda, eta orain, aldaketa nabarmena, herriaren ordezkari-tza sartu da, eta gainera zaborrik sor ez dadin aldarrikatzen duen taldearentzat. Ederra.

Euskal Herriko gatazka ere, susmoa daukat bideratzen hasi garela. Estatuak geroz eta aitzakia gutxiago du errepresiorako, gutxiago orain izen handiko nazioarteko hainbat lagunek gertuki jarraitzen ari dira espainiar eta frantziar estatuekin dagoen gatazka. Baina ez dut uste

itxaroten egon behar dugunik haiek pausoren bat eman arte, ez eta zer egiten duten herriari hitza emateko, preso sakabanaketarekin, eta abar luze batekin. Ez. Guk mugitu araziko ditugu, Euskal Herria bat eginda. Orain lortu behar duguna biolentzia armatua helburu politikoa lortzeko ez erabiltzea da, hortik abiatuta gure herri txikira benetako bakea iritsiko delako. Eta hor kokatzen ditut atxilotetak, torturak, presoekin txantaia, jazarpen militarizatua (kontrolak, manifestazioen zaintza armatua...), eta nola ez, Espainiako konstituzioaren (aldaeina dena, baina batzuetan bai) 8. artikulua, Espainiako estatuaren batasunaren bermea espainiar armada dela dioena. Mundu berri bat eraikitzen ari gara, eta Euskal Herriari hasi gara. Garaiak aldatzen hasi dira, eta nik ere protagonista izan nahi dut. Denok izan beharko dugu protagonista, demokrazia gabeko eta bortxaz betetako garai bat behin betiko atzean gelditu, eta Euskal Herri librearen ametsa gauzatzeko.

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Hiru usurbildar Gipuzkoako hondakinen partzuergoan

GHK Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa sozietateko administrazio kontseilu berria osatu da, eta Bilduko bi kide izango ditu agintari: Juan Carlos Alduntzin Gipuzkoako Ingurumen diputatua izango da presidentea, eta Jose Maria Ribadeneyra Usurbilgo zinegotzia eta San Marko mankomunitateko kidea izango da presidenteordea. Administrazio kontseiluan ere izango dira Imanol Azpiroz eta Ainhoa Arrospide usurbildarrak.

Hondakinen arazoa soseguz aztertu behar dela eta zero zabor helburua eskura

tzeko asmoz jokatzea beharrezko izango dela adierazi zuen Juan Carlos Alduntzinek kargua hartu bezain pronto.

Lehen aldiz, Gipuzkoa Zero Zabor taldeko kide bat

GHK-ko administrazio kontseiluko kide gehienak Bildukoak eta Bilduk proposatutakoak izango dira. Nora Galparsoro, Leire Egaña, Iñaki Errazkin, Amaia Gurutzeta, Ainhoa Ugalde, Azeari Andonegi eta Imanol Azpiroz izango dira hondakinen partzuergoko administrazio kontseiluan. PSE-EE alderdiko bi kide ere izango



AURREKO ASTEAN OSATU ZEN
ADMINISTRAZIO KONTSEILU BERRIA.

dira bertan: Arcadio Benitez eta Denis Itxaso. Eta lehen aldiz, Gipuzkoa Zero Zabor taldeko ordezkari batek parte hartuko du partzuergoan: Ainhoa Arrospidek.



Aliprox
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182



JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008



Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra
943 372 679 eta
649 435 470
kale nagusia 47, beheka A



Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Mobilizazioetan dira Michelingo langileak

Urriaren 19an, Michelingo langileek elkarretaratzea egin zuten lantegi aurrean. Eta aste honetan ere beste bat iragarria zuten. Lan hitzarmen duin bat nahi dute eta sindikatu guztiek bat egin dute eskaera horrekin; ELA, LAB, ESK, CGT, CCOO, UGT eta CSI-k. Mobilizazioak Lasarte-Orian, Gasteizen eta Michelinek Espainian dituen enpresa guztietan deituak izan dira.

LAB sindikatutik ohartarazi dutenez, “urte osoa daramagu lan-hitzarmen berriaren negoziazioan. Hitzarmen honek espainiar estatuko eta Euskal Herriko bi lantegiei eragingo die (Gasteiz eta Lasarte-Oriako lantegiei). Hasiera hasieratik Enpresa zuzendaritzak negoziazioa bera luzatzeko jarrera garbia izan du, akordio bat lortzeko jarrera benetan eskasa erakutsiz. Enpresaren jarrera honek eraginda, mahai negoziatzaileak ia astero mantentzen zituen bilerak bertan behera geratu dira, negoziazioa blokeo



URRIAREN 19AN ELKARRETARATZEA EGIN ZUTEN.

puntu batetara iritsiaz”.

Irabaziak dituen enpresa

Enpresak egin duen eskaintza, sindikatu abertzalearen esanetan, “oso urrun dago bere errealitate ekonomikotik. Lau urtetarako proposatzen duten hitzarmen honetarako soldata igoera ez da KPIaren igoerara hurbildu ere egiten”. Aldiz, iaz

Michelinek zenbateko irabazi garbiak izan zituzten gogorarazten dute LAB sindikatutik.

Estatu mailan 192 milioi euroko irabazi garbiak, 2009ko emaitzak bikoiztuz eta talde osoak hamar aldiz biderkatu zituen urtebete lehenagoko irabaziak, guztira 1.079 milioi euro irabazi zituen.

Zubietako lanak bisitatzeko izan dira ITAYAkoak

Zubietako errauste planta, kartzela eta poligonoko lanak ikustera joateko ITAYA Gazte Asanbladakoek antolatuta zuten irteeran parte hartu zuten herritarrak hunkituta itzuli ziren. Hauxe da NOAUA!-ra bidali duten baloraziotik jaso duguna.

“Adin ezberdinetako lagun talde ederra abiatu ginen Santuenetik barrena Artzabaleta Txiki baserrirantz. Hona iristean mendian gora abiatu eta ohartu ginerako begi aurrean genituen erraustegiko lur mugimenduak. Bagenekien zertara gindoazen, baina halakorik ez genuen espero. Lehen ezagun genituen erreka eta bailarak guztiz hondatuak zeuden. Lur mugimenduak herritik handia badirudi, zer esanik ez bertatik ikusita, izan ere urrundik ikusten dena baino 10 aldiz handiagoa da”.

ITAYAKoan ustez, erraustegia eraiki nahi duten lekuan “Usurbilgo kaxko osoa



ZUBIETAKO PROIEKTU EZBERDINAK IKUSTEN IZAN ZIREN ITAYAKO HAINBAT KIDE.

sartuko litzateke. Hau gutxi balitz, honen ondoren Letabideko mendixka gainditu eta lur mugimenduen zatirik handiena ikusi genuen, kartzela eta Eskuzaitzetako poligonoiari dagokiena; eremu honen azalera erraustegiarena baino askoz ere handiagoa izanik. Eragingo litzuzkeen osasun

kalteengatik erraustegia darabilgu beti ahoan, baina jendearen gehiengoak ez daki honen ondoan beste makroproiektu hauek ere eraikitzen ari direla”. Hunkituta itzuli ziren herrira eta “zentsu-gabekeria hau eragozteko elkarlana” behar dela azpimarratu nahi dute.

URDAIAGA

ALAZNE BEGIRISTAIN

Festak gogoratuz



Udazkenean sartuta, eta nahiz eta festetatik denbora pixka bat pasa den ondo etortzen da errepasso bat egitea. Xanixtebanak abuztuaren 3an hasi ziren. Gurean beti izaten da sorpresatxoaren bat eta festen aurreko egunetan elizako zimentorioko teilatua erori zen. Halere, Sanesteban egunean hurbildu zen jendea. Meza, paxientxik ardo pixka batekin hartu eta Usurbilgo haurren dantza saioa ikusita bazkaltzera. Jubilatuak Zumetan bildu ziren. Arratsaldean jokoak izan ziren eta ondoren Laja eta Mikelekin erromeria. Hurrengo egunean, oilasko biltzaileak. Aspaldiko garaiak gogoratuz ateratzea erabaki nuen eta han azaldu nintzen goizeko 6tan plazara. Igartzazabalgo aldapan gora abiatu ginenean damutu egin nintzen nire erabakiaz baina azkenean ederki pasa nuen eguna. Gero Aialdeko bazkariak gozatu, iluntzean oilaskoak lumatzera eta gauean Akerrara bertakoak antolatu zuten kontzertuaz gozatzera. Ostiralean, jai batzordekoak hurrengo egunetan banatu beharreko afariak prestatzen aritu ginen eta gauean, afalondoren, Josune Aranburu, Mendeku Itxua eta Trikihots oholtza gainean. Hemen komisio "zaharrekoen" laguntza eskertu beharra daukagu, tabernan lanean aritu baitziren. Larunbatean, haurren eguna. Gero eguraldia okertzen hasi zitzaigun eta afalondurako ez zen giro! Jende asko gerturatu zen bertara baina jaimak itxia jarri ziren eta sentsazioa arraroa



zen, bazirudien ez zela inor bertan. Afalondoren bertsolariak eta gero Jalisko band-ekin dantzatzeko aukera! Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, bertaratu zen jendearekin parranda ederra egiteko aukera izan genuen. Igandean egitarauarekin jarraitu beharra zegoen. Jendea mezetara igo zen eta gu, lo gutxi (ezer ez) egin genuen aurpegiarekin presente, baina beno, txukun aritu ginen salda banatu eta toka txapelketa antolatzen. Ez dut gezurrik esango. Nahiz eta festak ederki pasa ditudan, gustu handiz itxi nituen lokaleko ateak festak bukatu zirela pentsatuz eta amaren bazkari goxoa zain neukanaren ilusioarekin. Hurrengo urtean, gehiago!

ATXEGALDE

MARIA JESUS URBIETA

Denbora aurrera



Orporaldi baten ondoren, hemen gara berriz zuekin. Udazken bikaina izaten ari gara oraingoan eta jendea udan baino gusturago ikusten da. Uda bera baino ederragoa izan da iraila eta urria bera ere. Ezin aspertu eta ahal izan duten guztietan, ederki gozatu du jendeak. Aginagako San Praixkuak pasata, denbora badoa, joan egiten da. Santu Guztien Eguna ere gainean dugu jada, eta urtero bezala, lore politez beteko dira auzoetako hilerriak. Gurean ere loreak dagoeneko prestatzen hasiak dira. Gaiez aldatuz, kinto bazkaria ospatu genuen 1946. urtean jaiotako emakume talde batek. Pozik eta umoretsu pasa genuen eguna, joan den urriaren 9an. Datorren urterako gonbidapena luzatzen dugu, aurten bazkarira joan ez diren gizon eta emakume herri-tar guztiei, edo bertan bizi direnei, hurrengo urtean etor daitezten.



KALEBERRI

ANA URDANGARIN

Urdiñarbe-Usurbil



Shaska barruan dauden hainbat ikastola eta taldeei laguntzeko festa eder hau egiten da Ziberuko Urdiñarbe herrian.

Normalean urriko astebukaera batean antolatu ohi dute ekimen hau eta gure herriko jendeak lagunduta prestatzen da han ospatzen den afari herrikoia.

Bertan ateratako dirua hainbatetan Xohutako ikastolaren alde, Zuberoako boxen alde eta azken hiru urteotan Integrazio taldeko partaideentzat izan ohi da.

Badira jada hamabi bat urte Usurbilgo herritar batzuk Urdiñarbe aldera joaten direnetik eta aurren ere aterako da bertara laguntzera joateko taldetxoak.

Ateraldia asteburu honetan bertan, urriaren 28tik 30era izango da, ostiraletik igandera eta herriko edonork etortzea gustoko balu, lekutxo honetatik parte hartzeko gonbitea luzatzea gustutuko litzaidake. Giro aparta izaten da bertan eta bide batez laguntza eskaini bagenezake, askoz hobe. Herritarrei deialdia egina geratzen da beraz.

Ondo izan eta hurrengora arte.

SANTUENEA

PAKO AGUDO

Ehiztariak eta onddozaleak



Ia egunero auzotik pasa eta Andatza bidea egiten dut eta duela hilabete bat jada udazkena zetorrela sumatzen hasia nintzen.

Eguraldi ero honekin bazirudien uda ez zela amaituko, baina naturari erreparatuaz segituan konturatzen gara azken aldi honetan gertatzen ari den aldaketaz.

Ez dut esaten sagarrondo batzuk berriz loratzen ari direlako edota oiloak bere lumak noiz galdu behar dituzten ez dakidalako, inguruan azaltzen zaizkigun garai honetako "espezie" konkretu batzuegatik baizik.

"Uso zaleak eta onddozaleak". Horiek esaten digute zehatz mehatz udazkena noiz iristen den. Usoak edota onddoak ez badira azaltzen ere, hauek ez dute kale egiten. Gure auzoan betidanik izan da zaletasuna ehizerako eta onddozale ugari dago ere.

Bi ekintzak egiten dituztenak ere ez da zaila topatzea. "Usorik ez la... goazen onddo la...". Giro berezia sortzen du honek gure auzoan. Goizean goizetik jendea gora, autoak behera.

Hamaiketakoaren garaian goizaren balantzea egiteko



aukera, je, je, je. Norbaitek ba al daki zenbat tiro bota dituen alferrik ehiztari batek edota non bildu dituen bere onddoak onddozale batek?

Ehiztariak altuegi zihoazela eta ez duela tirorik bota adierazi du.

Onddozaleak berriz berarengana hurbilduz gero ezkutatatu eta galdetzekotan ere kontrako bidetik bidaliko zaitu. Dena den horrek auzo giroa bizirik mantentzen du. Beraz udazkenaz gozatu eta natura errespetatu. Hurrengora arte.

KALEZAR

MADDI GALBETE

Larunbateroko zita



Etxe gehienetan bezala, gurean ere bada futboleko aditua denik. Txikitatik hantxe ibili dira gurasoak, larunbatero, bakar batean ere hutsik egin gabe. Aitzakiak potoloa behar du izan larunbateroko zitara ez azaltzeko. Ni ez naiz sekula oso zalea izan. Partidek urduritzen naute eta azkazalik gabe bueltatu ohi naiz etxera bakar batera joan izan naizenetan. Hala ere, gurasoek gustura joaten jarraitzen dute eta pozik iristen dira partidatik bueltan etxera. Larunbatetako planak ez du sekula hutsik egiten. Han biltzen dira, koadrilako seme guztien amak eta aitak. Zenbat gustatzen zaien momentu hori konpartitu eta partida ikusten duten bitartean elkarri kontuak esatea...! Batzuk gehiago sartzen dira partidari, beste batzuk, goletaz bakarrik enteratzen dira. Etxera iristean partidarengatik galdetzen badiet, erantzun guztiak desberdinak izaten dira. Anaiak objektibotasunez erantzungo dit ziurrenik; aitak beti exajeratuko du semearen jokaldirik bikainena, eta amak 2-1 irabazi dutela esango dit 4-2 irabazi dutela esan beharrean (gol batzuetan Inakiren amarekin hizketan egongo zen ziurrenik). Han jarraitzen dute, larunbatero. Gaurko kronika beraiantzat, horren leial partida bakar bat ere ez galtzeagatik.

ZUBIETA

PELLO ARANBURU

Azken bizilaguna

Zubietara bizitzera hegoaldetik etorritako azken bizilaguna dugu aldameneko hau: amiamoko edo zikoina. Joan den astean edo etorri zen. Ikusten duzuenek Alkortaeneako teilatua du gogokoak besteak beste. Ez dut gogoan inoiz horrelakoren bat ikusi izana Zubietan. Helduagoei galdetu behar.





BILDU USURBIL: EGUN HISTORIKOAK

Bistan da, egun historikoak bizitzen ari garela eta lehio berri bat ireki dela Euskal Herrian. Berriak arrapaladan etorri dira baina pentsatzekoa da, noski, lan isil handia egin dela hau guztia horrela gauzatzen hasteko. Donostiako Nazioarteko Konferentziatik lehio handi bat zabaldu da Euskal Herriaren etorkizunari. Hortik atera diren ondorioak oso garrantzitsuak izango dira konponbide politikoa lortzeko; beraz, Konferentzia honen emaitza txalagarria dela esan beharra dago.

Gatazka politiko bat dagoela ondorioztatu du Nazioarteko Konferentziak eta gatazka honek irtenbide politikoa behar duela esan du. Eta beste zerbait ere egin du: ariketa argia planteatu du eragile guztientzat, estatuentzat, ETarentzat eta Euskal Herriko alderdientzat. Zalantzarik gabe, momentu hau, aukera hau, aprobeztatu egin behar da. ETak Konferentziaren eskakizunei erantzun zuzena eman du jada azken agiriarekin, bere jarduera armatua behin betiko alboratu du; hau izan da lehenengo urratsa, eta noski, normala den bezala izugarritzko inpaktua izan du. Ea laster Gobernuak ere Konferentziak egindako eskakizunei erantzuna ematen dien. Hori da egin behar dutena eta. Presoen egoeraren inguruan eman daitezkeen urratsak eta Sorturen legalizazioak egoera berri hau finkatzeko premiazkoak dira.

Historikoa eta pozgarria da, noski, halako egoeran egotea. Hainbat urte pasa ondoren, gure aurrean dugu aukera erreala guztioi irabazle egingo gaituen elkarrizketaren bidezko akordiora iristeko. Orain ez dago aitzakiarik; eta nazioarteko begirada Euskal Herrira zuzenduta dago.



PSE-EE USURBIL: EGUN HANDIA DENONTZAT

Egun pozgarria da demokraziak indarkeriari irabazi diolako. Zuzenbide sistema, epaileak, segurtasun indar guztiak eta batez ere gizarteak terrorismoa gailendu dute. Argi utzi nahi dut ETak ez duela helburu bakar bat ere lortu indarkeriazko 43 urte hauetan. Hainbeste hildako, 800dik gora, ez duela ezertarako balio izan. Nire lehen hitzak, beraz, indarkeriaren biktimentzat dira. Ideia politikoak defendatzeagatik erailtzen zen Europako azken lurraldea Euskadi izan da. Hain zuzen, albiste jaso bezain pronto nire lehen pentsamenduak irrazionaltasun honen biktima guztientzat izan dira.

Hemen ez dauden nire kideetaz akordatu nintzen, Froilan Elespe, Juan Priede, Enrique, Fernando... ETak bizitza kendu dien beste askorekin akordatu nintzen. Horien guztien irmotasunari esker etorri den albiste izan da. Gobernu demokratiko guztiena, eta Espainiako Gobernuko presidente den Jose Luis Rodriguez Zapateroren lana goraiatu nahi dut eta bere Barne Ministro izandako Alfredo Perez Rubalcabarena. Eusko Jaurilaritza guztiak, lehenengotik hasi eta Patxi Lopez lehendakariak gidatzen duen gobernu hau bitarte. Epaile guztiak. Segurtasun indarretako agente guztiak. Enpresari guztiak. Kazetari eta irakasle guztiak. Ideia totalitarioei men egin ez dieten herritar guztiei eskerrak.

Aurrerantzean, etorkizun berri bat ireki da eta dagoeneko Lehendakariak bere karguari dagokion ekimena hartu du. Ordezkaritza instituzionala duten alderdi eta koalizio guztiak deituko ditu etorkizunari begira elkarbizitza indartzeko. Espero dut politikook aukera hau ez galtzea, guk, sozialistok, ez dugu aukera alferrik galduko. Gizarteak ez ligu ke barkatuko.



ARALAR USURBIL: ETAPA BAT IXTEN DU

Aralarrek oso modu positiboan baloratzen du ETA erakundeak Nazioarteko Bake Konferentziako deiari baikorki erantzun izana. Modu positiboan baloratzea (Adierazgarria) da ETak aldebakarrekotasunez erantzun izana deiari, eta bereziki poztekoa da euskal herritarren eskaera entzun eta erantzun izana.

Bizi dugun egoera honetara iristeko milaka pertsonak, bakoitzak bere esparruan, bakearen ideia eta bortxaren gaitzezpena zabaldu izan dute. Norbanakoaren ekarpena ekarpen kolektibo zabala bihurtu dute eta hauetariko bakoitzari eta guztiei gure eskerrik zintzoenak ematen dizkiegu egoera honetara iristeko egin duten ekarpenagatik. Gizartea da eta gizarteak izan behar du bakearen benetako protagonista.

Aralarrek adierazten du gaurko egunak Euskal Herriko historiaren etapa bat ixten duela, eta irabazle eta galtzailerik gabeko bake iraunkorra eraikitzeko etapari atea irekitzen diola, elkarrizketari bide emanez. Ondorioz, euskal eragile politiko, sindikal eta sozialen, hots, herriaren esku utziaz gatazkaren konponbiderako giltza.

Halaber, Espainiako eta Frantziako estatuei bide beretik joka dezaten eskatu nahi diegu, Bake Konferentziako deia aintzat hartuz ETaren elkarrizketako deiari baiezkota eman eta elkarrizketari bide emateko, soilik gatazka armatuaren ondorioetat aritzeko.



HAMAIKABAT USURBIL: BAKEA GARAILE

Talde terroristaren adierazpena bere proiektu totalitarioaren porrota da eta askatasunaren garaipena, beraz atseginez hartzen dugu berria.

ETak porrot egin du euskal gizarteak aspalditik bizkarra eman diolako. Bazen garaia. Zer lortu du? Ezer ez. Zer utzi digute? Hildakoak, mina, negarra eta gorrotoa. ETak isurritako odolak sufrimendua besterik ez du ekarri.

ETak indarkeriari uko egitea aspaldi hartu beharreko erabakia izan behar zuen. Euskal herritarrok horrela eskatu baitiogu behin eta berriz. Dena den, ez gaitu guztiz aseptzen, entzun nahi duguna talde terroristaren desagerpenaren iragarkia baita.

Hala eta guztiz ere, jabetzen gara emaniko urrats hau herri honek sufritzen duen indarkeriaren eta jazarpenaren bukaeraren hasiera dela; eta era berean, benetako baketze, benetako biktima guztien aitortza eta benetako adiskidetzeta eta elkarbizitzaren hasiera dela; luzea izango den fase berri batean sartu gara.

Gure herrian, Usurbilen, azken belaunaldietan erroturik daude beldurra, sufrimendua, ezberdin pentsatzen duenari jazarpena, gorrotoa, mendeku irrika eta askatasun nahia. Guzti hori aldatzeak luze joko du, guzti horri buelta emateak luze joko du, beste belaunaldi bat agian.

Ez dezala inork pentsa ETA-ren existentziak merezi izan duenik. Ez diegu ezer zor. Bakea garaile.



EAJ-PNV USURBIL

Momentu historikoa da. 52 urteko ETaren jarduera armatua behin betiko amaitu da eta itxaropenez eta ilusioz hartzen dugu. Politika egiteko garaia da. Bakearen eta normalizazio politikoaren garaia iritsi da, eta bide hau egitea guztion ardura izango da. Eragile sozial, politiko, instituzional eta herritar ororena. Ez da bide erraza izango, baina denon artean lortuko dugu.

Iraganean, Espainia eta Alderdi konstituzionalisten aldetik, alderdi abertzaleen aldarrikapenek behin eta berriro ezetza jaso dute. Orain, horretarako ETak eskaintzen zien aitzakia ezingo dute erabili.

Aldiz, ezker abertzaleak demokrazia eta politikaren bidea egiten ikasi beharko du.

Politika egiteko garaia iritsi da. Iraganeko akatsak ez ditzagun errepikatu eta gure Herriaren etorkizunaren alde zintzo lan egin dezagun.

Gora Euskal Herria Askatuta!

Azaroaren 3an osteguna, Paul Riosen hitzaldia Sutegin

Jarduera armatua behin-betiko amaitzea erabaki zuela jakinarazi zuen aurreko astean ETA erakunde armatuak. Era honetan, baiezkota eman zion Donostiako Nazioarteko Konferentziako eskaerari; "adostutako ebazpenak gatazkaren konponbide osorako osagaiak biltzen ditu eta nazioartearen eta euskal jendartearen sektore anitzen babesa du". Kontestu honen aurrean, ezin une egokiagoan ekarri gure artera Paul Rios Lokarriko koordinatzailea. Datorren astean Sutegin eskainiko duen hitzaldiarekin hasiko da NOAUA! Kultur Elkarteak antolatu duen Kultur Astea.



BRIAN CURRIN ETA PAUL RIOS.
LOKARRIKOA SUTEGIN IZANGO
DA AZARAREN 3AN 19:30EAN.



Errausketa, konponbide ala ahaltsuen negozio?

Zergatik dago konpostatze planta bakarra Gipuzkoan PIGRUGaren arabera 2009 urterako 3 planta eraikita eta martxan egon behar bazuten? Zergatik zabaldu dute hainbeste gezur atez ateko bilketaren aurka? Garbi dago guzti honen atzean hondakinen arazoari irtenbidea ematearen gainetik jarzen den arazoaren bat dagoela. Baina zein interes dago zehazki? Zertan datza hainbestetan aipatzen den negozio hori?

Hondakinak zabor toxiko bihurtuta energia lortzea negozio borobila bihurtu dute zenbaitzuek. Negozio horren errentagarritasuna ondorengo arazoietan datza:

Erregai merkea: Normalean, argindarra sortzeko erregai fosilak erabiltzen dira, gasa, petroleoa eta ikatza. Hauek eskasak eta garestiak dira, geroz eta gehiago, eta merkatuen arau eta gorabeheren menpe egoten da prezioa. Hondakinak erretzeagatik, herritarrok ordaindu behar diegu errauste planta kudeatzen dutenei eskaintzen diguten "zerbizua-gatik". Beraz erregaiagatik ordaindu beharrean, erregai eskuratzeagatik irabaziak daukate. Horra hor negozio kutsakorren lehen hanka.



IRUDIAN, BIZKAIKO ERRAUSTE PLANTA.

Energia berriztagarria: Horrela arautu dute behinik behin. Errauste plantan materia organikoa erretzeagatik, hau da biomasa deritzotena erretzeagatik, energia berriztagarritzat daukate. Eta zer axola du horrek, izen egokia ez izatea gora behera? Ba energia berriztagarria den aldetik diru laguntza publikoak jasotzen dituela. Hau da, guztion kontura berriz ere diru jasotzen dutela.

Lehentasuneko energia: Negozioa ez da hor bukatzen. Energia "berriztagarri" izaera horrek, energia banatzaileek lehentasunez erosi behar izatea

du ondorioztat. Horrela araututa dago. Beraz, bestela sortutako energiarekiko lehentasuna dauka merkatuan eta salmenta ziurtatzen dute. Hirugarrenoz herritar eta kontsumitzaileek ordaintzaile.

Ikus daitekeen bezala, negozio emankorra izateaz gain negozio segurua ere bada errausketa. Horrek ulergarri egiten ditu zenbait politikok eta hedabidek errausketa arriskuan jar dezaketenei ekimenen aurka egiten dituzten kanpaina zikinak.

Euskal preso politikoek eskubideak aldarrikatzeko Egin Dezagun Bidea taldea osatu da

Egin Dezagun Bidea. Euskal preso politikoek inguruan osatu den taldea da. Kartzela politika konponbide klabeetara aldatu behar dela uste dute eta horretan ari dira lanean. Usurbilen ere martxan jarri da taldetxo bat. Ostiral honetatik aurrera, eurek hartuko dute bere gain hilabeteko azken ostiraleko elkarretartzea. Baina “jende ezberdinari aukera eman nahi diogu, aldarrikapen hau ere bere egin dezaten”.

NOAUA! Egin Dezagun Bidea taldea osatu duzue herrian. Zein izango da zuen zeregina?

Aitor Landaluze. Aurtengo urtarrilean hasi ginen elkartzen, presoek gaiaren aurrean beste salto bat eman asmoz. Illegalizazioak izan direla medio, presoek gaia gehien bat senideengan geratu da. Gure asmoa litzateke erreleboa hartzea. Senideek bete dute lan bat baina beste bultzada bat behar du presoek gaiak. Hain zapalduak eta gutxiestuak dituzten eskubide horietan oinarriturik, euren aldarrikapenak bideratu nahi genituzke.

PRESO POLITIKOEN ALDE

“Urtarrilaren 7an manifestazio nazionala deitu dute Bilbon”

Joxemari Lizaso. Presoek beren “zigorra” jaso badute epaitegietatik, euren senideek zigor gehitu bat izan dute orain arte. Ekonomikoki eta bestela ere. Bidaia luzeak sakabanaketa dela eta... Senideei laguntza bat ematearren ere sortu zen “Egin dezagun bidea” ekimena.

N. Beste herri askotan ere osatu dira zuen moduko taldeak, ezta?

A. L. Nazio mailako mugimendua da hau. Herri eta eskualdeetan ere pixkanaka ari dira taldeak osatzen eta helburu batzuk markatzen, badugu bat eskuartean: urtarrilaren 7ko manifestazioa. Presoek eskubideak aldarrikatzeko, manifestazio erraldoi bat ari gara presta-



AITOR LANDALUZE, KULUXKA OLAIZOLA ETA JOXEMARI LIZASO.

tzen. Presoek eskubideak berma daitezkeen eta Euskal Herrian garai honetan irekitzen ari den prozesuan euren ekarpenak ere egin ditzaketelako.

N. Hilabeteko azken ostiralekoari dagokionez, ostiral honetako elkarretartzean zuek hartuko duzue erreleboa.

A. L. Hala da eta aurrerantzean hilabeteko azken ostiraleko mobilizazioa guk dinamizatuko dugu. Ez dugu gure gain hartu, baizik eta elkarte eta jende ezberdinari aukera eman nahi diogu, aldarrikapen hau ere bere egin dezaten. Gure asmoa da eurak bihurtzea protagonista mobilizazio honetan. Senideek egin dute bide bat baina orain guk hartuko dugu txanda, baina protagonismoa gizarteari emanez. Eskubideetaz ari garenez, gizarteari dagokion gai bat da azken batean. Eta denok dugu zeresana eskubide horien alde.

N. Hasi al zarete herriko taldeekin harremanetan jartzen?

A. L. Orain hasi gara. Hilabete honetan gu izango gara azalduko garenak elkarretartzean, baina gure asmoa da elkarte ezberdinekin harremanetan jartzea.

N. Egun hauetan bizi dugun egoeraren aurrean, itxaropentsu izateko moduan al gaude? Nola bizi duzue zuek?

J. L. Hainbestetan itxaropentsu egon

gara... Itxaropena beti izaten da eta ez da galdu behar baina gaizki atera denean oraindik egurra handiagoa eman diete.

Hiru urrats

Espetxe politika konponbide klabeetara aldatzeak, honako urratsak jaso eta ahalbidetu behar ditu Egin Dezagun Bidea taldearen ustez. Horrela jasota dago euren web orrialdean:

- **Muturreko egoerak ezartzeko salbuespeneko neurri guztiak indargabetzea:** dispersioa bukatzea; kondena bete dutenak, gaixorik direnak, 3/4-ak bete dituztenak kalera ateratzea; tratu krudelak bukatzea, hala nola isolamendua, bakartzea, jipoiak...

- **Euskal Preso Politikoen Kolektiboa Euskal Herrian batzea,** dagozkion eskubide indibidual, kolektibo, gizabanako, politiko eta zibilen jabe, Euskal Herriko prozesuan, gainerako eragileek bezala, inolako trabarik gabe parte har dezan ahalbidetuz.

- **Gatazka konpontzeko prozesuan,** gatazkaren ondorioak gaindituz joatea beharrezkoa izango da, besteak beste, preso eta iheslari politikoek etxeratzea ahalbidetuz. **Gatazka konpontzeko prozesua, Amnistia prozesua ere bada.**

“Herriko hiru presok zigorraren hiru laurdenak beteak dituzte eta oraindik kartzelan jarraitzen dute”

NOAUA! Egin Dezagun Bidea ekimenaren bitartez, herritarren inplikazioa bilatu nahi duzue.

Joxemari Lizaso. Eta ezagutzera eman egoera. Jendeak gauza bera entzuten duenean, gauza bera egunero errepikatzen denean, jende bat ohitu egiten da azkenean. Gezurra badirudi ere, hemen Usurbilen herena izango da adinez 20 urtez azpikoa izango dena. Eta herriko preso bat 20 urte beteta dago, hori pentsatze hutsak... Eta kalean egon beharko lukeena noski. Orain dela bost urte.

N. Ze kasuaz ari zarate hizketan?

J. L. Xabier Aranburuk, adibidez, duela bost urte kalean egon beharko luke. Ramon Uribe bera ere betetzear dago zigor osoa baina beldur da berriro legedi famatu hori aplikatzen badiote, 197/2006 sententzian jasotakoa, zigorra 30 urte arte edo luzatzea...

A. L. Parot dotrina deitzen dioten hori.

J. L. Zentzu handirik gabeko gorroto zigorrak ari dira jartzen. Eta hori salatu behar da.

N. Ze egoeran daude herriko presoak oraintxe bertan?



OSTIRALEAN ELKARRETARATZEA EGINGO DA, 20:00ETAN MIKEL LABOA PLAZAN.

A. L. Hiruk zigorraren hiru laurdenak beteak dituzte eta oraindik kartzelan jarraitzen dute. Xabier Aranburuk, Ramon Uribek eta Jokin Errastik.

J. L. Ezin dugu ahaztu Patxi Seguiolaren egoera.

A. L. *Linbo* legal batean dago une honetan. Frantzian konfinaturik dute, zigorra bete du baina estradizio eskaera bat medio ezin du handik mugitu. Ez du onarpenik, ez errekonozimendurik, ez paperik, ezer ez.

Eta iheslari bat dugu ere antzeko egoeran. Badira beste bi preso, bi urte daramatzenak. Eta gogoan izan denek tratatu txarrak jaso zituztela eta inork ez diela jaramonik egin. Gauza horiek salatzeke modukoak dira.

Ohitu egin gara, ematen du eguneroko ogia dela, baina datu horiek hor daude. Gure asmoa hori da hain zuzen, hau guztia jendeari berriz gogoraraztea; ea denon artean bultzada ematen diogun gai honi. Ez dadin denboran gehiago luzatu.

“Gaizkile baten antzera tratatzen zaituzte bisitan joaten zarenean”

NOAUA! Presoek egoera berean jarraitzen dute oraindik, ezta?

Aitor Landaluze. Edo egoera okerragoan oraindik. Egunak aurrera doaz eta askok ez lukete kartzelan egon behar. Hori okertze bat da.

J. L. Ramon Uriberi txantaia zorrotza egin diote azken hiru urteotan. Urte mordoa Langraitzen egin du, etxetik nahikoa gertu. Hiru laurdenak beteak zituen, erredentzioak direla eta beste, baina Salamancara eraman zuten eta asteak izan ditu ia egunero jardun zaizkionak, txantaian. Eta ari zaizkio oraindik.

N. Kontestu berri honetan, bisitan joan zaretenean, aldaketarik sumatu al duzue espetxeetan?

A. L. Kontestu berria Euskal Herrian dago, hemendik kanpo ez da nabari. Ematen du diskurtso batzuk ari direla aldatzen baina presoek gaiari dagokionez ez dut aldaketarik sumatu inon ere (elkarriketa hau ETaren azken adierazpenaren aurretik egin dago).

J. L. Egoera gogortu egin da. Azken urteotan, espetxe batzuetan 10 lagun bakarrik onartzen dituzte bisitan eta kontrolak zorrotza egin dira. Bisitariei hatzmarkak hartzen dizkiete, katxeoak...

Gaizkile baten antzera tratatzen zaituzte bisita egitera joanda. Hainbeste alditan aipatzen dituzten giza eskubideak nonbait beraientzat bakarrik omen dira.

N. Herritarrei zerbait esan nahi al diezue?

A. L. Datozen egunetan harremanetan jarriko gara herriko taldeekin. Eta norbanakoek guregana hurbildu nahi badute laguntzeko edo partehartzeko, atak irekita daudela eta gure asmoa hori dela, taldea zabaltzea. Denon lan-kidetzarekin posible dela urratsak ematea gai honetan.

Mertxe Aizpurua, 100 egunez alkatetzan “Ez dira egun lasaiak izan”

Legegintzaldi hasiera oro markatzen duen ehun egunen muga gainditu du jada Bilduko gobernu taldeak. Hilabete hauek zertarako baliagarri diren, hirigintza arloan esku artean dituzten egitasmoez edota udal aurrekontuei buruz galdetu dio NOAUA!-k Mertxe Aizpurua alkateari. Erantzunen artean, hirigintza arloan babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa berri bat egingo dela iragarri du. Udal aurrekontuak ere lantzen hasiak direla jakinarazi dio NOAUA!-ri.

NOAUA! Zer nolakoak izan dira lehen egun hauek?

Mertxe Aizpurua. Ez dira egun lasaiak izan, baina neurria hartzen jakin izan dugula uste dut. Horretarako balio izan dituzte hilabete hauek. Azken finean kokatzea da garrantzizkoena, eta gero, hortik aurrera erabakiak hartzeko ere abiapuntu ona lortzea. Oraingoz gozoak izan dira. Gauza berriak ikastea beti ondo dator eta bere alde polita badu, gauza berrietan sartzeak. Bestalde ere, uste dut lantalde ona osatu dugula. Zinegotzien artean, giro ona dago, gaitasuna eta ahalmenak agerian jarri dira eta talde lana burutzeko pausoak eman ditugu.

ETXEBIZITZA BABESTUAK

“Nik uste datorren urtean Ugartondoko etxebizitzekin beste zozketa berri bat egingo dela”

N. Egundun hauek baliagarriak izan zaizkizue?

M. A. Ez dugu ahaztu behar, zer egoeratik gatozen. Egoera oso berezia, jarraipen bat egotea galarazi duena. Esperientzia duten pertsonak lan horrekin jarraitu ahal izatea, politikoki ezabatu den aukera izan da. Gainerakoan, ehun egun hauek kokatzeko baliagarriak izan dira. Tonua hartzeko bai Guk Udalarri eta baita herriak guri ere. Kontakturen bat edo arazoren bat planteatu nahi izan

duten herritar guztiak atea irekita izan dituzte. Jendeak eskertuko zuela uste dut, eta gure jarduna nolakoa izango den bidea ere markatzen du. Baina ez dira izan behar neurria, lan talde berri baten gaitasuna edo ekimena neurtzeko.

Babes ofizialeko etxebizitzak “martxa onean doaz”

N. Abian dira Sekaña eta Agerreazpiko etxebizitzaren eraikuntza lanak. Garaiz bukatuko al dituzte?

M. A. Data bat ematea oso zaila eta arriskutsua da. Legez bi urteko epea dute. Kontratuaren arabera, lanak sei hilabete baino gehiago ezin dira gelditu. Beraiekin hitz eginda, lanak martxa onean doazela eta beraien helburua ahalik eta lasterren bukatzea izango dela diote. Gustatuko litzaidake esatea, datorren urterako amaituak egongo direla, baina beraien esku dago. Martxa onean doaz halere. Ez dut uste etenaldi handirik izango dutenik. Eraikuntza lan guztiak geldituta daude, orduan horrek ere gure alde egiten du.

N. Pisua egokitu eta atzera bota behar izan dutenak, asko izan dira?

M. A. Egia da, beste herrietan, baja asko ematen ari dira eta kezkatuta daude. Gaur egun kredituak eskuratzeko oso zaila dago. Baina Usurbilen baja oso gutxi eman dira. Bi arrazoi daude neure ustez; etxe hauen zozketa egiterako denbora pasa den arren, usurbildarrak ez dira beste herrietara bizitzera joan. Agian, aurrezteko denbora ere egon da tarte horretan. Eta bestalde, Usurbilen geratu nahi dutela kosta ahala kosta, eta ahaleginak egiten dituztela horretarako.

N. Babes ofizialeko etxebizitzaren beste zozketa bat aurreikusi liteke 2012rako?

M.A. Aurreikusi daiteke. Batzuk badira deitu dutenak ia hurrengo babes ofizialeko etxebizitzak noiz aterako diren. Ugartondoko proiektua geldirik zegoen baina jada pausoak ematen hasi direla esan daiteke. Birpartzelazioa eta hainbat barruko tramite egin dira. Eraikuntzen eta jabegoen arteko hainbat pauso egin



LAN TALDE ONA OSATU DUTELA USTE DU ALKATEAK.

dira. Nik uste datorren urtean Ugartondoko etxebizitzekin beste zozketa berri bat egingo dela.

Egitasmo ugari

NOAUA! Beste egitasmorik baduzue hirigintza arloan?

Mertxe Aizpurua. Kaxkoko urbanizazio obrak amaitu berri dira. Datorren urteari begira, jarraipen moduan, beste fase bati ekiteko asmoa dago. Eta gero, hasitako beste hainbat egitasmo bukatzeaz daude; Oiardo Kiroldegiko lanak bukatu dira, Atallun Garbigunearen obrak egiten ari dira. Orain arte Pikaolan zegoena hutsik geratuko da. Hor badaude beste etxe batzuk proiektatuta. Nahiz eta aspalditik geldirik egon, badirudi datorren urtean hasi litezkeela obra horiek. Ikastolaren eraikuntza berriko lanak ere datorren urterako aurreikusten dira. Udalak proiektu horretan lagunduko du.

“Usurbilgo Udala ez dago egoera kritikoa; asko dira gu baino okerrago daudenak”

NOAUA! Usurbilgo Udalak beste erakundeekin dituen harremanak mar-txan dira. Zer nolako hasiera izan da?

Mertxe Aizpurua. Beste erakundeekin, beste herrietako zinegotzi eta alkateekin, eta kanpoko erakundeekin hainbat harreman sendotu eta uztartu dira. Zonalde mailan adibidez, oso harreman estuak ditugu. Askotan egoten gara bai Lasarte-Oriako, Hernaniko eta Donostialdeko beste politikariek. Alde horretatik, muga dauden edo guztion interesa pizten duten hainbat proiektu amankomunean jartzeko beste sare bat dago inguruan.

N. Aldundiak %1ean igo du udal finantzaketa. Zertan eragingo du?

M. A. Foro fondoa da, Aldunditik udaletara etortzen den diru iturri nagusia. Aldundiak urtarrilean sartu zigun diru kopuruaren zati bat, udal guztiok itzuli beharko dugu. Horrek egoera deseroso batean kokatzen gaituenez, egoera nolabait leuntzeko, %1aren gehikuntza hori dago. Eskertzekoa da egin duten esfortzua.



AURREKONTUEI BEGIRA ARDURAZ JOKATU BEHAR DELA DIO
MERTXE AIZPURUA ALKATEAK.

M. A. Usurbilgo Udala ez dago egoera kritikoa; asko dira gu baino okerrago daudenak. Kontua da aurreikusten den Foru Fondoaren murrizketak eragina izango duela eta zentzu horretan, aurrekontuei lotuta, arduraz jokatu beharra dagoela.

N. Hori guztia udal aurrekontuetan islatuko da beraz. Zertan da gaia?

M. A. Lanean hasiak gara, bakoitza bere departamenduan ia zer aurreikuspenak dituen datorren urterako. Hor gabilta orekak bilatzen. Oraindik borobiltzeko asko dugu.

2012KO AURREKONTUAZ

“Hor gabilta orekak
bilatzen. Oraindik
borobiltzeko asko dugu”

N. Hainbat erakunde nola dauden ikusita, Usurbilgo Udala kezkatzeko moduko egoeran dago?

Azaroaren 20ko hauteskunderi begira

NOAUA! Elkarrizketa hau argitaratzerako, azaroaren 20ko hauteskundeetako mahaikideen zozketa egin egongo da. Lan egitea egokitu zaien herritarrek beharrezko argibideak jasoko dituzte ezta?

Mertxe Aizpurua. Laguntza osoa ematen zaio Udalaren aldetik. Mahaian egotea egokituta, batek pen-

tza dezake agian igande bat izorratu zaiola. Baina herri honetarako, Euskal Herri osorako garrantzitsuak izango dira hauteskundeotan lortzen diren emaitzak. Alde horretatik hartuta, egun horretan lan egiteak onuragarria izango den zerbaiterako balio izango du. Udaletik argibide eta laguntza guztia emango zaie.

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
eraikuntzak-OBRAK-ERREFORMAK

izagirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

LATAILLADE
ITURGINTZA
Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak
eta mantenimendua
Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

Desegin musika talde gaztea, abesti berriak sortu eta maketa prestatzeko asmotan dabil

Ekhi Arrietak, Joxe Mari Zubimendik, Iñaki eta Beñat Irazustak eta Aitor Pagolak ondo pasatzeko tresnan bihurtu dute musika, Desegin taldea osatu zutenetik. Hiru urteko bidea jorratu dute jada. Martxan jarri zutenetik gaurdaino taldeak izan duen bizitzaren errepaso duzue honakoa. Eta datorrenaren iragarpena, etenaldi bat hartu eta abesti berriak sortzekotan baitira Desegineko kideak. Eta ez dute urruti ikusten, euren lehen lana prestatu eta plazaratzeko aukera.

NOAUA! Non abiatzen da Desegin?

Ekhi Arrieta. Istorioa nahiko luzea da. Bost lagun hasi ginen baina kantariak eta bateri joleak taldea utzi zuten. Iñaki Irazusta sartu zen duela bi urte. Ostiraletan entseatzen hasi ginen, aste barruan ezin baikenuen elkartu. Duela bi urte hasi ginen kontzertuak ematen.

N. Lehen urtea beraz, entsegu eta abestiak sortzeko lanetan eman zenu-ten?

Joxe Mari Zubimendi. Koordinazio maila bat lortzen aritu ginen. Gure helburua ez da inoiz izan, kantak sortu eta kontzertuak ematea.

E. A. Ez ginen hasi hamar kanta sortzeko erronkarekin, bertsio batzuk jo eta ondo pasatzeko baizik. Gero pare bat kanta sortu genituen.

N. Eta geroago lehen kontzertua...

E. A. 2010eko otsailean Askatasuna plazan, Odolaren Mintzoa eta Despervicio taldeekin. Lotsa guztia hor galdu genuen.

Iñaki Irazusta. Afaltzen dardarka ginen. Gero lehen abestia jota, lasaiago.

J. M. Z. Kontzertua hasi baino ordu erdi lehenago sabelean korapilo handia genuen.

N. Ordurako kanta batzuk sortuko zenituzten. Zer nolako errepertorioa duzue gaur egun?

J. M. Z. Lau kanta genituen lehen kontzerturako, gainerakoak bertsioak ziren. Egia esan, jendea maketa noizko izango dugun presionatzen ari zaigu.

I. I. Orain zazpi abesti ditugu gureak,



HARANeko LOKALETAN ENTSEATZEN DUTE.

baina bertsioak asko jotzen ditugu. Iritsiko da gure kantak plazaratuko ditugun ueua.

E. A. Beste talde baten kantak jotzen gehiago gozatzen dugu. Bertsioak moldatzen ditugu, kantak sortu baino.

KONTZERTUAK BEGIBISTAN

“Azaroan Santuenean eta Irurtzunen joko dute. Abesti batzuk sortzen ere hasi nahi dute”

N. Helburua argi duzue; ondo pasatzea. Baina esku artean badarabilzue zuen lehen lana plazaratzeko asmoa?

J. M. Z. Ilusio handia egingo liguke eskutan izatea CD bat edo formatu bat, gure abestiekin.

I. I. Dirua lortzean, egingo dugu zerbait.

E. A. Orain arte herri mailan ibili gara. Herriko auzoetan jo dugu, Lasarte eta Donostiara ere irten gara. Hemengo bira egin dugu. Orain herri mailan etenaldi bat egin eta abesti batzuk sortzen hasi nahi dugu.

N. Maketa lantzeko asmoa izanez gero, Haranen dauden taldeen esperientziak lagungarri izango zaizkizue?

J. M. Z. Usurbilen zorionez Txofo dugu. Badu grabatzeko materiala. Lan txukuna egin daiteke. Ideia horrekin

gabiltza; lehen esandakoa, zazpi abesti ditugu, beste pare bat sortuta, zerbait grabatzekotan.

N. Haranen entseatzen duzue. Nabarmentzeko moduko musika taldeen mugimendua dago bertan?

J. M. Z. Bi gela daude entseatzeko, eta biak beteta. Gure lokalean lau talde daude eta bestean hiruzpalau. Udaletxeari eskerrak eman, eurek utzitako lokal bat baitugu.

E. A. Giro ona dago. Haranen sartzeko talde gehiagok egin dute eskaera. Baina arazo bat dugu; leku falta.

N. Aurrera begira, jarraitzaileek noiz izango dute zuen berri?

J. M. Z. Azaroan Santuenean. Hango jai batzordeak herriko taldeei gau batean kontzertua jotzeko deialdia egin zaie. Herri giroa egongo da, giro ona segurua.

I. I. Irurtzunen azaroaren 11n. Akatu edota De Cuajo taldeekin batera joko dugu.

N. Bukatzeko, zaletuei zer esan nahi zeniekete?

E. A. Lasai egoteko, kanta berriak etorriko dira eta maketaren ideia hor dago. Ondo pasa nahi badute, segitzeko gure kontzertuetara etortzen.

J. M. Z. Eskerrak eman orain arte etorri izan direnei, guri ere ondo pasarazi digutelako.

Oiana Blanco judoka bosgarren postuan Abu Dhabin

40 punturekin bosgarren postuan sailkatu da Usurbil Judo Klubeko Oiana Blanco, Abu Dhabin jokatu duen txapelketan. 2012an Londresen ospatuko diren Olinpiar Jokoetarako proba puntuagarria zen.

Final zortzirenerako sailkatu aurretik, bi borrokaldi jokatu behar zituen Blancok. 2009an Tbilisin jokatu zen Europako Txapelketan brontzeko domina galdu zuen Baschin alemaniarraren aurkako borrokaldia, oraingoan irabazi zuen. Lehendik seitan borrokatu eta galdu arren, Ana Hormigo portugaldararen aurka jokatu zuen borrokaldian ere nagusitu zen. Aldiz, final laurdenetan Shugen Wu txinatarren aurkako lehia galdu zuen. Aipatu moduan bosgarren postuan sailkatu da Oiana Abu Dhabiko txapelketan.

Aukera asko ditu

2012ko Olinpiar Jokoei begira, Oiana Blancok oraindik ez du txartela eskuratu baina aukera asko ditu sailkatzeko. Emakumeen artean, munduko ranking-eko lehen 14ak sailkatuko dira. Herrialde bakoitzeko bakarra sailkatzen denez, lehen 16ak izan daitezke



ARGAZKIAN, OIANA BLANCO
ETA BERE ENTRENATZAILEA.

Londreserako txartela eskuratu dezaketenak. Oiana Blanco oraintxe bertan 11. postuan da bere mailan (-48 kg). Eta puntuazioari begira, distantzia handian dira ranking-eko 15. eta 16. postuetan daudenak.

Beraz, gauzak ez badira asko okertzen, Oiana Blanco Joko Olinpikoetan izango da 2012an.

Igerilari masterra, Buruntzaldea IKTren eskutik

Buruntzaldea IKT igeriketa taldeak Igerilari masterra antolatu du. Igerilari popularrak, igerilari ohiak, triatloilariak... Orori irekia. Urrian zehar, "nahi duen edonor probatzera etorri daiteke, izen ematea azaroan bideratuko baita (urrian ez da kuotarik kobratuko)".

Entrenamendu egunak: astelehena, asteazkena eta ostirala. Lasarte-Oriako igerilekuan. Ordu-tegiak aukeran: 7:10-8:10 | 16:15-17:15 | 20:15-21:15.

Informazio gehiago Lasarteko igerilekuan, Borjagatik galdetuz (18:00-21:00). www.buruntzaldeaikt.blogspot.com

GPS ikastaroa

GPSrekin orientazio ikastaroa Gantolatu du Andatza Mendizale Elkarteak, azaroaren 21, 23 eta 26rako. Gipuzkoako Mendizale Federazioko aditu Jaime Eguzkitzak eskainiko du ikastaroa euskaraz. Ekimenean parte hartzeko lehen tasuna Andatza Mendizale Elkartearen kideek izango dute. Izen emateko epea zabalik egongo da, azaroaren 14ra arte. Informazio gehiago, andatza.com web orrialdean.

Argazki lehiaketa

Andatzak deituta

Ekimena irekia da, edonori Ezuzendua dago. Argazkiak Andatzan ateratakoak behar dute izan. Lanak azaroaren 16ko iluntzeko 20:00ak baino lehen aurkeztuko beharko dira. 100, 75 eta 50 euroko sari bana jasoko dute, lehen hiru argazki onenek.

Argazkien aurkezpena

-Argazkia: bakarra, 20cm x 30cm.

-Nola aurkeztu: tolestu gabeko kartazal itxian, eta bertan, "I. Argazki Lehiaketa" adieraziz. Beste kartazal itxi batean kanpoaldean, izenburu bera idatzi eta barruan, izen-abizenak eta telefono zenbakia.

-Non aurkeztu: Andatza taldekoen egoitzan, ostegunetan 19:00-20:00 artean edo Sutegiko harreran.

-Informazio gehiago: andatza.com

Eskubaloi partidak

URRIAK 29 LARUNBATA

Jubenil mutilak, Liga Territoriala.

Usurbil K.E. - Eibar. 16:30h

Senior mutilak, 2. Territoriala.

Usurbil K.E. - Donibane. 18:00h

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
943 69 68 52 · 620 800 186

Ramon Agirre aktorea eta Mursego kantaria, NOAUA!ko kultur astean

Datorren astean hasiko da NOAUA!k antolatu duen Kulturaldia. Urtero, azaroa partean bideratu ohi duen ekitaldi sorta. Beste behin ere, eskaintza oparoa izango da: Paul Riosen hitzaldia, Ramon Agirre eta Inazio Tolosaren antzezlan, Mursegoren kantaldia eta kayaksurfi buruzko proiektzioa.

Paul Rios Lokarriko koordinatzailea izango da lehen gonbidatua. Nazioarteko Konferentziak eta behin betiko armak uzteko ETAK hartu duen erabakiaz hitz egingo du azaroaren 3ko hitzaldian. Sutegin, 19:30ean hasita.

Ramon Agirre, "xentimorik gabe"

Azaroaren 5ean larunbata, "Xentimorik gabe" antzezlanaekin Ramon Agirre eta Inazio Tolosa aktoreak izango ditugu gure artean. Umorea eta musika dira saio honen osagai nagusiak. 19:00etan hasiko da, Sutegin (sarrerak NOAUA!n eta Txirinogan salgai).



MAITE ARROITAJAUREGI, MURSEGO.

Mursegoren kantaldia

Euskal Herrian topatuko dugun proposamen interesgarriena izango da. Definitzen zaila dena. Onena, zuzenean ikustea. Pista bat: tarteka, Mikel Laboa eroena etorriko zaigu gogora. Azaroaren 6an igandea, 19:00etan Sutegin.

Kayaksurf

Munduko Txapeldunak izan dira euskal selekziokoak eta tartean dira bi usurbildar: Xabier Olano eta Garazi Iturralde. Kirol honi buruzko hitzaldi-proiektzioa eskainiko dute azaroaren 11n, Sutegin 19:30ean hasita.



INAZIO TOLOSA ETA RAMON AGIRRE, DATORREN ASTEAN IZANGO DIRA SUTEGIN.

Ipuin kontalariak udal liburutegian

Urriaren 27an osteguna, Miriam Mendoza udal liburutegian izango da, 5 urteko haurrei ipuinak kontatzen. 18:00etan hasiko da.

Azaroaren 3an osteguna Pello Añorga ipuin kontalariaren txanda izango da, 18:00etatik aurrera. HH4ko ikasleentzat arituko da.

Hitzaldia Zubietan

Gipuzkoako organo emaileen Gkoordinaziorako zentruan aritzen da Luzia Elozegi. Jarduera honi buruzko hitzaldia emango du urriaren 27an osteguna, arratsaldeko 19:00etan, Zubietako Kaxkapen.

Larunbatean, kantu-jira

Usurbilgo Kantu Taldekoak hasi dira entseatzen. Eta baita hilabeteroko kantaldiak eskaintzen. Herritar orok har dezake parte. Larunbat honetan, 19:00etan abiatuko dira Mikel Laboa plazatik.

Azaroaren 5ean,

DYAren urteurren bazkaria

Aurten 25 urte beteko ditu Lasarte-Oria eta Usurbilgo DYAk. Azaroaren 5ean, bazkari batekin ospatuko dute urteurrena. DYako bazkide eta bazkide ohiak daude gonbidatuta eta informazio edo argibide gehiago eskuratu nahi dutenek DYaren 943 46 46 22 telefono zenbakira deitu beharko dute.



Javier Orbegozo
 ·ITURGINTZA
 ·GASA ·BEROKUNTZA
 659 602 789
 Erreka-txiki 13, 3.esk USURBIL 943 37 29 37

JE JON ELORZA
 IGELTSERITZA
 OROKORRA
 Obrak eta erreformak
 661 804 688
 San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Agenda!

Urriak 27 osteguna

- Komunikazioa nola landu seme-alabekin. Hitzaldia Udaregin, 17:00h.
- Miriam Mendoza ipuin kontalaria liburutegian. 18:00h.
- Organo emaileen inguruko hitzaldia Zubietako Kaxkapen. 19:00h.

Urriak 28 ostirala

- Lucio Urtubiaren hitzaldia 22:00etan Sutegin.

Goardiako farmaziak

Urriak 27, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Urriak 28, ostirala
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Urriak 29, larunbata
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Urriak 30, igandea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Urriak 31, astelehena
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Azaroak 1, asteartea
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Azaroak 2, asteazkena
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Azaroak 3, osteguna
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Azaroak 4, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Azaroak 5, larunbata
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Azaroak 6, igandea
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

* Larunbatetan, *Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.*

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpurua, Latxunbe Berri, 11, Hernani
Telefono zenbakia: 943 336 077.

www.noaua.com webgunean 2011ko egutegia

Azaroaren 1ean Artisautza Azoka

Badator Aitzaga Elkarteak antolatutako Artisautza Azoka. Urtero moduan, azaroaren 1ean ospatuko da frontoi inguruan. Hamaseigarren edizio honetan ere, hogei postu inguru bisitatzeko aukera egongo da.

Denetariko produktuak aurkituko ditu, datorren asteartean pilotalekura gerturatzeko denak; bitxigintza, larrugintza, egur lanketa, zeramika, otargintza, metalgintza... Ez hori bakarrik. Hamaiketako ederra dastatzeko modua ere izango baita. Txorizoa eta taloa jan



ARTISAU LAN EZBERDINAK
JARRIKO DITUZTE IKUSGAI.

ahal izango dira eta. Guztia, azaroko lehen egunean, goizean hasi eta bazkalordura arte.

"Familiaren garapen ebolutiboaz" hitzaldia

Ostegun honetarako, 17:00etatik aurrera Udaregi ikastolako erdiko aretoan, "Familiaren garapen ebolutiboaz" izenburudun hitzaldia antolatu du Hitz Aho guraso elkarteak. Familiaren eboluzioa, haurren garapen ebolutiboa, familiaren garapena eta garaian garaiko kezka eta beldurrak, ilusio eta pozak, arriskuak eta indarguneak ahotan hartuko dira bertan. Hizlari lanean, Izar Arregi psikopedagogoa jardungo du. Zaintza zerbitzua izango da ekitaldiak irauan artean.

Azaroan tailerrak

Azaroan gai hau taldeka kasu praktikoan bidez lantzeko aukera izango da. Tailer hauen datak hitzaldian banatuko dira, bertan izena emateko aukera izango delarik.

-HHko ikasleen gurasoentzat: azaroak 7, 14 eta 21, 17:00-18:30.

-LHko ikasleen gurasoentzat: azaroak 8, 15 eta 22, 17:00-18:30.

-DBHko ikasleen gurasoentzat: azaroak 10, 17 eta 24, 17:00-18:30.

Lucio Urtubia militante anarkistaren hitzaldia

Aitzaga Elkarteak eta ITAYA Gazte Asanbladak antolatuta, Lucio Urtubia militante anarkistaren bitzita gertutik ezagutzeko aukera izango da, ostiral honetan, urriaren 28an, Sutegiko auditorioan. Gaueko 22:00etan hasita, berari buruzko dokumentala proiektatuko dute eta jarraian, Nafarroako Kaskanten jaio baina aspalditik Parisen bizi den lagunarekin hitz egiteko aukera izango da.

Antolatzaileek aurreratu dutenez, Urtubiak, "egun 80 urte ditu baina borrokarako grina ez du galdu. Han hemenka eskaintzen dituen hitzaldi eta topaketetan transmititzen duen errebeldia eta indarrak, herritarrak -batez ere gazteak- konkistatzen ditu".



SORTZEZ NAFARRA DA URTUBIA.

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

Otar-Goxo
Elkargaiak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Andoni Errazkin

Xukin
Igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL

663 08 76 71 • 943 24 34 65

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725



Interneten ere aurkituko gaituzu NOAUA! Usurbildarren zerbitzura



twitter



<http://twitter.com/noaua>



facebook

<http://www.facebook.com/noaua>



YouTube



<http://www.youtube.com/noauatb>



Noaua!!

<http://www.noaua.com>



www.noaua.com

www.noaua.com

HITZALDIA

Paul Rios

"NAZIOARTEKO KONFERENTZIAREN EBAZPENA" azaroak 3,
OSTEGUNA, 19:30h Sutegi (DOAN)

ANTZERKIA

Ramon Agirre eta Inazio Tolosa

"XENTIMORIK GABE" azaroak 5,

LARUNBATA, 19:00h Sutegi (SARRERA)

Sarrera: 5€ (Txiribogan, Noaualn eta egunean bertan)

Noaualko bazkideek 3€tan erosi ahal izango dute Noaualn aldez aurretik.

MUSIKA

Maitte Arroita Jauregi

"MURSEGO" azaroak 6,

IGANDEA, 19:00h Sutegi (SARRERA)

Sarrera: 5€ (Txiribogan, Noaualn eta egunean bertan)

Noaualko bazkideek 3€tan erosi ahal izango dute Noaualn aldez aurretik.

HITZALDIA ETA PROIEKZIOA

Xabier Olano eta Garazi Iturralde

"KAYAKSURF" azaroak 11,

OSTIRALA, 19:30h Sutegi (DOAN)

Noaual!

www.noaual.com



Udaltzaia Udaua

NOAUAIKO KULTURALDIA 2011 11/11 AZAROA

